Lucio Urzelai Gantxegi

Bergara, Gipuzkoa (1922-2009)



Aurkibidea

Biografia



Aranerreka auzoko Abrain baserrian jaiotakoa; gazte-gaztetatik arotzeria kontuak interesatu izan zaizkio. Ezkondu ondoren Osintxun bizi izan zen denboraldi batez, baina gerora berriz ere Bergarara joan ziren bizi izatera. Industria gizona. Miren Osa emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

BER-186

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2004-11-02
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

BER-187

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2004-11-02
- **Iraupena**: 55 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Aita arotza; amak janari-denda Osintxun

- **Erref**: BER-186/004
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:10:55. **Bukatu**: 00:11:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Aita arotza zen eta etxeak egiten zituen. Gero zerrategia ipini zuen Osintxun. Luciok ere bertan lan egin zuen soldadutzatik etorri ostean. Lehen jendea Gasteizera joaten zen gaztelaniaz ikastera. Amak ez zekien tutik ere gaztelaniaz, baina hala ere ondo moldatzen zen Osintxun zuen janari-dendan.

2. Osintxuko errementaria; elkarrekin lanean

- **Erref**: BER-186/007
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:13:08. **Bukatu**: 00:14:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Osintxuko errementaria: Damaso. Kalean zeukan errementeria. Beraiek zerrategia zuten eta askotan elkarrekin egiten zuten lan. Gainera, lagunak ziren.

3. Osintxuko Damaso ferratzailea

- **Erref**: BER-186/010
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:14:58. **Bukatu**: 00:16:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:
Osintxuko Damaso errementaria ferratzailea ere bazen. Aita Damaso zen eta semea Lucio. Inguruetako ferratzaile bakarra zen. Mutil gazteak edukitzen zituen ofizioa ikasten. Soraluzen ere ferratokia zuen. Baserrietatik kalera jaisten ziren abereak ferratzera.

4. On Benigno abadearekin meza-laguntzaile

- **Erref**: BER-186/017
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:23:21. **Bukatu**: 00:24:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Dotrina euskaraz eta gaztelaniaz ikasi zuen. On Benigno abadearekin meza-laguntzaile moduan urte asko egin zituen.

5. Gerra sasoian errekara salto eginda ihes

- **Erref**: BER-186/021
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:32:43. **Bukatu**: 00:34:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra sasoian nazionalek Osintxuko sei gizon hil nahi izan zituzteneko kontuak. Batek ihes egitea lortu zuen errekara salto eginda.

6. Osintxuko errekan arrantzan eta igerian

- **Erref**: BER-186/029
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:41:15. **Bukatu**: 00:42:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:
Errekan ibiltzen ziren asko mutikotan, arrantzan edo igerian. Igerian nola ikasi zuen. Soraluzen makal (txopo) handi batetik uretara salto egiten zuten. Pilotan ere asko ibiltzen ziren, elizpean.

7. Osintxuko errekan arrantzan

- **Erref**: BER-186/031

- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:42:58. **Bukatu**: 00:44:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Arrantzan ibiltzen ziren errekan. Loinak, barboak eta aingirak harrapatzen zituzten. Loinak butroiarekin arrantzatzen zituzten. Aingirak eskuarekin ere harrapatzen zituzten.

8. Butroiarekin arrantzan

- **Erref**: BER-186/033
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:44:48. **Bukatu**: 00:46:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Butroia nolakoa izaten zen azaltzen du marrazki batekin. Loinak, barboak edo bertara sartzen zen guztia arrantzatzen zuten butroiarekin.

9. Osintxun arrantzarako zaletasuna; karramarroak

- **Erref**: BER-186/036
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:47:27. **Bukatu**: 00:48:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Luciok arrantzarako zaletasun handia zuen. Osintxun arrantzarako zaletasun handia zegoen, erreka bertan zuten eta. Karramarroak ere harrapatzen zituzten. Karramarroen buztaneko mamia ona izaten zen amu moduan erabiltzeko, aingirak arrantzatzeko, adibidez.

10. Errepublikaren aldarrikapena Osintxuko "Centro Republicano"an

- **Erref**: BER-186/043
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:56:45. **Bukatu**: 00:57:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:
"Centro Republicano"-a egon zen Osintxun, "Baskeneko" tabernan. Errepublika aldarrikatu zenean, leihotik bandera atera eta errepublikaren aldeko oihuak bota zituzten.

11. Luzio 15 urterekin Soraluzera lanera

- **Erref**: BER-187/002
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:04:00. **Bukatu**: 00:07:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Luzio 13 urte ingurura arte ibili zen eskolan, eta gero, Soraluzeko "Tokorraneko" lantegian hasi zen lanean, amandreak bidalita. Osintxuarrak Soraluze eta Mekolaldera joaten ziren lanera.

12. Txirrindularitzarako zaletasun handia

- **Erref**: BER-187/003
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:07:20. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:
Bizikletaz joaten ziren lanera. Osintxun txirrindulari profesionalak egon ziren; Luzio Gantxegik Eibar-Madril karreran parte hartu zuen. Gaur egun baino lasterketa gehiago izaten ziren orduan. Loroñok zale gehiago zituen Bahamontesek baino. Herrietako jai gehienetan egoten ziren txirrindularitza lasterketak.

13. "Sábado inglés"

- **Erref**: BER-187/004
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:12:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Luzio lanean hasi zenerako "sábado inglés" ezarrita zegoen. Zapatuetan goizetik bakarrik egiten zuten lan. Hamabostean behin kobratzen zuten. Osintxu hiru auzotan banatuta dago.

14. Bola-joko zalea zen Luzio

- **Erref**: BER-187/005
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:12:53. **Bukatu**: 00:16:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Erromerietarako zaletasun handirik ez du izan Luziok. Bola-jokorako ordea bai; Eibar eta Angiozarko bola-tokietara askotan joaten ziren. Diru asko jokatzen omen zen bola-jokoan.

15. Bola-jokoa

- **Erref**: BER-187/006
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:16:20. **Bukatu**: 00:18:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:
Bola-jokoa azaltzen du Luziok. Elgetan, Antzuolan eta Azpeitian jokatutakoa da. Osintxuko bola-tokira kanpotik ere etortzen ziren jokatzera.

16. Herri-kirolak

- **Erref**: BER-187/007
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:18:50. **Bukatu**: 00:20:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Soraluzen ahari-jokoak ezagutu zituen Luziok. Soka-tira eta idi-probak ere izaten ziren orduan.

17. Gerra etorri zenean

- **Erref**: BER-187/008
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:20:10. **Bukatu**: 00:23:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Soldadutza Nafarroako Piriniotan egin zuen. Gerra denboran Osintxun zegoen. Aita auzo-alkate zegoen, nazionalistekin. Aita espetxeratu eta ama bakarrik geratu zen etxeko dendan.

Transkripzioa
- Soldautza nun egin zenduan?
- Nik Nafarruan, fronteran. Pirineos. Hantxe ein neban ta…
- Ta zenbat denporan ein zenduan?
- Hiru bat urte edo.
- HIru bat urte?
- Bai hiru urte, ixa hiru urte.
- Luze, ez?

- Bai, bueno... ba! ondo egon giñan soldau.
- Bai?
- Bee. Hau kendu leike ala?
- Ez, ez bajatzu inporta, holan hobeto entzungo da. Eta gerra sasoia zuri nun tokau jatzun?
- Gerria?
- Gerria etorri zanian, zu nun zeren?
- Osintxun. [...] hortxe lehen esan doten [...] basarrixan. Ta ni [basarrixan] neuala ta "Aiba dios!" reketiak ostutzera etortzen zian haraxe basarrira. Oilluak harrapau ta eruan eitten zittuen. Bai. Bueno! [...]. Ta gero tiruak eta... ez dakit ze pasau zan. Ta gero ya zerian ta [afusillau ein zittuela]. Gure tio bat... gure tio bat, Kostolakua, Tomas, ta haren anaia be bai, Ixaak. Ta gero beste bi... beste hiru gizon, hiru edo lau, ta holako... [...] jeonan beste aldian, ta afusilatzera eruan, salto in kanalea ta kanalian paretan kontra ezkutau... hamendik salto [ittia holan zera] dana ezkutau, hor ezkutatzia bezela, ta hamendik bota otsezen tiruak, baiña ez eben harrapau. Zelan ezkutau zan horren kontran, ba, [...] ta handik bestekaldian bere [etxia ta etxera allegau...]. Ta holaxe salbau zan. Ta gero handik Elgetara; lagundu zittuzten ta Elgetara pasau zan [hare].
- Orduan, gerria etorri aurretik eta, zeoze entzuten zenuen, ba, gerria zetorrela edo gerriak urten zebala edo?
- Bai, gerrian zaratia edo... ointxe dabizen moduan.
- Entzuten zenduen orduan, imaginatzen zenduen?
- Karo
- Eta, ez dakit, etxian zer entzuten zenduen?
- E?
- Etxian ze esaten zeben? Gerria...
- Etxian [...]. Gurian nazionalistak zian, nazionalista... alkate [...] aitta. Alkate egon zan. Bai, zuk nazionalistia zer dan jakingo dozu ba. "De política, ¿ya sabes?"
- Bai, bai, bai.
- "Era nacionalista" ta [...] amorrua zeuan. Ointxe daon moduan. Ta gero kartzelara eruan zeben aitta ta gure ama etxian dendiakin ta gu mutiko bixok etxian ta ni eskolan ta nere anaia be bai. Baiña [hori eskolan zerian, Osintxun] edo. Holaxe.
- Eta, orduan, aitta alkate egon zan...
- Alkate egon zan.
- ... Osintxun. Eta...
- Kartzelara eruan zaben ta gero handik librau zaben eta... tira. Gero librau... bai, librau zaben ta zera.
- Kartzelara eruan zeben ya gerria urtenda zeuanian?
- E?
- Gerria urtenda zeuanian kartzelara eruan?
- Gerra denporan, orduantxe kartzelara eruan zeben. Gero Eibarrera lanera jun zan aitta. Han Lekeittion-ta taillarra ipini jonan; han hasi zonan sozio. Ta gero ni hara. Plazentziatik ni [berriz be] lanera hasi nitzan ta handik hara jun nitzan, Eibarrera, Eibarko taillarrera, aittaana. Eta gero handik soldau.

18. Mutikotan bonbardaketei begira

- **Erref**: BER-187/010
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:27:07. **Bukatu**: 00:29:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:
Deia edo El Día eta La Voz de Guipúzcoa egunkariak irakurtzen zituzten etxean gerra aurretik. Bonbardaketak ikusten egoten ziren gerra denboran. "Abuelo" abioi handia gogoan du Luziok.

19. Eskolarik ez gerra denboran

- **Erref**: BER-187/011
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:29:23. **Bukatu**: 00:31:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Luziok Elementalean ikasten zuen orduan; baina, gerragatik, eskolara joateari laga behar izan zioten. Etxeko dendatik banatzen zituzten errazionamenduko gauzak. Osintxura ezkondu zen Luzio.

20. Emakumeak lanean

- **Erref**: BER-187/012
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:31:38. **Bukatu**: 00:34:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Gerraostean kale-giroa ez omen zen asko aldatu. Artesen kotoi lantegia zegoen Osintxun, batez ere emakumezkoak egiten zuten lan bertan, bi errelebotan.

21. Zerrategia etxean

- **Erref**: BER-187/014
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:37:38. **Bukatu**: 00:41:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Zerrategi bat jarri zuen Luzioren aitak Osintxun. Torlojugintza tailerra ere jarri zuten. Baso eta zerrategiko lanak azaltzen dizkigu.

22. Ilbeheran botatzen dira zuhaitzak

- **Erref**: BER-187/015
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:41:33. **Bukatu**: 00:44:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Pagoak ilbeheran botatzen dira, bestela egurra usteldu egin daiteke. Baso eta zerrategiko lanak azaltzen jarraitzen du.

23. Oholak eta uztaiak

- **Erref**: BER-187/017
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:45:03. **Bukatu**: 00:47:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Zerrategiko lan nagusia ohol ekoizpena zuten. Alfa lantegirako zurezko uztaiak ere egiten zituzten. Pago, haritz, gaztaina eta intxaurrondoak ohol bihurtzen zituzten, altzarigintzarako. Intxaurra zen estimatuena.

24. Torlojugintzan aritua

- **Erref**: BER-187/018
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:47:42. **Bukatu**: 00:50:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Torlojugintzan ere jardun zen, bere tailerrean. Bergarako Ezenarro lantegirako lan asko egiten zuen. Azkoinak egiten zituzten. Pegaso lantegiarentzako ere egiten zuen lan. Ugazaba eta langileen arteko harremana ona izaten zen orduan, greba gutxiagorekin.

25. Torlojugintzan lan asko

- **Erref**: BER-187/020
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:51:00. **Bukatu**: 00:52:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Torlojugintza gorantz hasi zenean, lan asko zegoen. Lagun artean berba egin eta halaxe erabakita, askok tailer propioa jarri zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-30

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com